



GHI-001/15-P06

**INGURUMENENKO ETA LURRALDE
ANTOLAKETAKO DIPUTATUAREN
2015eko OTSAILAREN 16ko 042-
LA/2015 FORU AGINDUA,
ORMAIZTEGIKO ANTONENE 7.
ALORREKO PLAN PARTZIALA BEHIN
BETIKO ONARTZEKO.**

Ormaiztegiko Udalak izapideak egin ondoren, **Antonene 7. Alorreko Plan Partziala** aurkeztu da Foru Aldundian, behin betiko onartzeko.

Ausart Antonene SL sozietateak sustatutako espedientearen xedea hau da: 28.768 m²-ko aipatutako alorraren antolaketa xehatua egitea, zeina baitago udalerriko erdialdeko bizitoki nagusiaren eta kirol gunearen artean. Mugak: iparraldean, lurzoru urbanizaezina; ekialdean, GI-2632 Beasain (N-I)-Elorrio errepidea; hegoaldean GI-3540 Ormaiztegi-Legazpi (Motxorro) Gabiriatik errepidea, eta, mendebaldean, udal kiroldegiko aparkalekuaren eremua eta lurzoru urbanizaezina.

Plangintza orokorrean alorrarentzat zehaztutako xedek hauek dira: eremu bat sortzea bizitoki hazkundeak xurgatzeko, eta etxebizitza tasatuko eskaintza sorrarazteko (aurreikusitako 146 etxebizitzetatik 136); egungo bizitoki nagusia kirol eta eskola gunearekin lotzea; eta, azkenik, ekipamenduen zuzkidura handitzea eta neurri handiko plaza nagusi bat egitea.

Hauek dira zonakapen xehaturako proposatutako parametro nagusiak: 10.382 m², bizitoki erabilerarako (5.929 m², bizitoki asentamendu komunitario lurzatiarako, eta, 4.453 m², intentsitate txikiko eraikuntzako lurzatiarako); 11.995 m²,

ORDEN FORAL 042-LA/2015, DE 16 DE FEBRERO, DEL DIPUTADO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DE TERRITORIO POR LA QUE SE RESUELVE LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL "PLAN PARCIAL DEL SECTOR 7 "ANTONENE" DE ORMAIZTEGI.

Tras su tramitación por el Ayuntamiento de Ormaiztegi, se presenta para su aprobación definitiva por esta Diputación Foral el "**Plan Parcial del Sector 7 "Antonene"**".

El expediente, promovido por Ausart Antonene, S.L., tiene por objeto ordenar pormenorizadamente este sector residencial de 28.768 m² de superficie ubicado entre el núcleo residencial principal y la zona deportiva del término municipal y delimitado por el norte por suelo no urbanizable, por el este por la carretera GI-2632 "De Beasain (N-I) a Elorrio", por el sur por la GI-3540 "De Ormaiztegi a Legazpi (Motxorro) por Gabiria" y por el oeste por la zona de aparcamiento del polideportivo municipal y el suelo no urbanizable.

Los objetivos determinados para el sector en el planeamiento general son la creación de un ámbito que absorba los crecimientos residenciales y genere oferta de vivienda tasada (136 de las 146 viviendas previstas en total), enlazar el actual núcleo residencial central con la zona deportiva y escolar, y finalmente, aumentar la dotación de equipamientos y crear una plaza central de importantes dimensiones.

Los principales parámetros de la zonificación pormenorizada propuesta son: 10.382 m² de uso residencial (5.929 m² de parcelas de asentamientos residenciales comunes y 4.453 m² de parcelas de edificación de baja densidad),

komunikazio sistemarako; 4.972 m², espazio libreen sistemarako; eta, 1.239 m², zehaztu gabeko ekipamendu komunitariorako (gainera, 370 m² erabilgarri, behe solairuan, ekipamendu kolektiborako).

Proposatutako antolaketa zeharkako bide ardatz bat eratzean oinarritzen da, egungo bizitoki nagusiaren eremua eta kirol eta ekipamendu gunea lotzeko; bide horrek, aldi berean, lau bizitoki lurzati mugatzen ditu, hartuko dituztenak 22na etxebizitza tasatu bakoitzak, neurri handiko plaza bat eta zehaztu gabeko ekipamendu bat. Ardatza bigarren mailako bide batekin osatuko da, zeina erabiliko baita hiru lurzaitara sartzeko (bakoitzean 16 etxebizitza tasatu egitea aurreikusten da), eta, baita alorraren ipar-ekialdeko ertzera ere (bertan, sustapen libreko familia bakarreko 10 etxebizitza eraikiko dira).

Honako jarduketa hauek egin dira udal fasean:

Nahitaezko txostenak eginda, Alkatezaren 2014ko martxoaren 20ko Dekretuaz ebatzi zen hasierako izaeraz onartzea 2013ko azaroko Plan Partziala; jendaurrean ikusgai egon zen denboran alegazio bat aurkeztu zen.

Aplikagarri diren alorreko araudietan aurreikusitako nahitaezko txostenak eskatuta, Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena egin zuen 2014ko apirilaren 7an.

Bestalde, 2006ko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, Urenak, 7 k) artikuluan eskatutakoa betez, URA Uraren Euskal Agentziak kontrako iritzia ematen duen lehen txostena egin zuen 2014ko uztailaren 18an.

11.995 m² de sistema de comunicaciones, 4.972 m² de sistema de espacios libres, y 1.239 m² de equipamiento comunitario no determinado (además de 370 m² útiles de equipamiento colectivo en planta baja).

La ordenación propuesta se basa en la creación de un nuevo eje viario transversal que comunica las actuales zona residencial central y el área deportiva y de equipamiento, vial que a su vez delimita cuatro parcelas residenciales que acogerán 22 viviendas tasadas cada una de ellas, así como una plaza de importantes dimensiones y un equipamiento por definir. Este eje se complementa con un vial de carácter secundario que da acceso a tres parcelas en las que se prevé la construcción de 16 viviendas tasadas en cada una de ellas, así como al extremo noreste del sector en el que se edificarán 10 viviendas unifamiliares de promoción libre.

En la fase municipal de tramitación del plan se han practicado las siguientes actuaciones:

Emitidos los informes pertinentes, mediante Decreto de Alcaldía de 20 de marzo de 2014 se resolvió aprobar inicialmente el Plan Parcial de fecha noviembre 2013, presentándose una alegación durante el periodo de información pública.

Solicitados los informes preceptivos previstos en las normativas sectoriales de aplicación, la Dirección General de Infraestructuras Viarias emitió informe favorable con fecha 7 de abril de 2014.

Por su parte, en cumplimiento de lo exigido en el art. 7 k) de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, la Agencia Vasca del Agua – URA emitió con fecha 18 de julio de 2014 un primer informe de carácter desfavorable.



Dokumentu berri bat idatzita, 2014ko irailekoa, planteatutako hainbat gairi erantzuten ziena, URA Uraren Euskal Agentziari txostena egiteko eskatu zitzaion, eta dokumentu horren aldeko txostena egin zuen, 2014ko urriaren 21ean.

Dokumentu berri bat idatzita, 2014ko azarokoa, espedientea izapidean planteatutako hainbat gai zuzentzen zituen, 2014ko abenduaren 15eko Osoko Bilkurak erabaki zuen izapidetutako dokumentua behin-behinean onartzea, eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentura bidaltzea, behin betiko onartzeko; espedientea 2014ko abenduaren 18an erregistratu zen foru egoitzan.

Dokumentuaren edukia aztertuta, Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuko zerbitzu teknikoek ez dute oharririk egin dokumentua behin betiko onartze aldera.

Horregatik, bada, uste dugu proposatzen den antolaketa egokia dela hirigintzako helburuei dagokienez, eta, horregatik, behin betiko onartu behar dela.

Horiek horrela, niri emandako ahalmenak erabiliz eta aplikagarri den legeria kontuan izanik honako hau

XEDATZEN DUT

Behin betiko onartzea Ausart Antonene SL sozietateak sustatutako **Ormaiztegiko Antonene 7. Alorreko Plan Partziala**, 2014ko azaroko dokumentuaren arabera.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO

Redactado un documento de fecha setiembre 2014 que respondía a las cuestiones planteadas, fue sometido a informe de la Agencia Vasca del Agua – URA que emitió informe favorable al mismo con fecha 21 de octubre de 2014.

Redactado un nuevo documento de fecha noviembre 2014 que corregía otras cuestiones planteadas a lo largo de la tramitación del expediente, el Pleno Municipal, en sesión de 15 de diciembre de 2014, acordó aprobar provisionalmente el documento tramitado y remitirlo a este Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio para su aprobación definitiva, -registrándose en sede foral la entrada del expediente completo con fecha 18 de diciembre de 2014.

Analizado el contenido del documento por los servicios técnicos del Servicio de Planificación Territorial de esta Diputación Foral, no se formulan observaciones en orden a su aprobación definitiva.

Por tanto, se considera que la ordenación que se plantea es correcta en cuanto a sus objetivos urbanísticos, por lo que procede su aprobación definitiva.

En su virtud, en el ejercicio de las facultades que me competen, vista la legislación de aplicación,

DISPONGO

Aprobar definitivamente el **“Plan Parcial del Sector 7 “Antonene” de Ormaiztegi**, promovido por Ausart Antonene, S.L., según documento de fecha noviembre 2014.


Esta Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma RECURSO

AUZI ERREKURTSOA aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, erabakia argitaratu edo jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Donostian, 2015eko otsailaren 16an
San Sebastián, a 16 de febrero de 2015

**INGURUMENEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO FORU DIPUTATUAK,
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO,**



Izp. / Fdo.: Iñaki Errazkin Vitoria